

## GAKO EKONOMIKOAK

- Txinatik datozen arazoak eta banku zentral nagusiek tasak noiz arte igoko direnari buruzko eztabaida izan dira hilabete ezegonkor honetako gertakari nagusiak.
- Itxiera negatiboak nazioarteko burtsa nagusietan. Europan eta Emergenteetan jaitsiera nabarmenekin.
- Hegakortasuna errenta finkoko merkatuan itxiera desberdinekin. Europan zor tasak baretu dira Estatu Batuetan tarte luzeak igotzen jarraitzen duen bitartean.
- Euroak balioa galdu du dolarrarekiko. Lehengaietan, aldiz, petrolioaren prezioaren igoerak eta urrearen jaitsierak eman dira.

## MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Beste behin abuztua merkatuetan izandako negoziazio urriengatik nabarmendu da, berriak egon diren arren. Hala, hileko lehen ekitaldi nagusia Fitch-ek Estatu Batuetako gobernuari zorraren rating jaitsierarekin iritsi da. Neurketa agentziak AAA kalifikazioa, kalitate altuena, AA+ kalifikazioagatik aldatu du. Hala ere, hasieran berria kezka hartu da, 2011-2012an bizitako zorraren krisiko mamuak esnatuz. Nazioarteko kudeatzaileak lasaitzeko deia zabaldu dute, jaitsiera hau agintari amerikarrentzako abisu bat dela soilik jakinaraziz. Baina bakeak ez du askorik iraun. Oro har, ekonomia kontrastez beteriko egoeran dago, industrian indar gehiago duten herrialdeetan berri txarragoak daudelarik, Alemanian atzeraldirako arriskua handituz, eta aldi berean, Europak bere bezero eta hornitzaile nagusietako baten babes falta sentitzen du, hain zuzen ere Txinarena. Eta Asiako erraldoi hori ziurgabetasunaren foku nagusienetako bat izaten ari da. Azken urtean inbertitzaileek herrialdea suspertzea espero zuten, zero covid politikak amaitu ondoren, baina boom ekonomiko hori oraindik ez da iritsi. Izan ere, abuztuan argitaratutako makro datu batzuek berriro ere kezka sorrarazi dute, agintariei higiezinaren krisiari aurre egiteko hazkunde suspertzeko diseinatutako estimuluak neurri berriak ezartzea behartuz. Baina, badirudi estimulu horiek ez dituztela merkatua konbentzitzen merkatu oso eszeptikoak bait daude, ez bakarrik Txinarekin, baita herrialde emergente gehienekin ere. Ekonomia amerikararen marxa onarekin alderatu du, erresilientzia harrigarria erakusten jarraitzen bait du. Testuinguru honetan, banku zentralak Jackson Holen bildu dira eta haien diru-politiken gogortzean aurrerapausoak eman dituzte. Zehazki Ingalaterrako Bankuak 25pb tasak igo ditu, % 5etik % 5,25era igaroz. Badirudi ekonomia ingelesa, bere banku zentralak emandako urrats horiei erantzuten ari dela, eta horrek pentsarazten du BoE-ren hurrengo mugimendua etenaldi bat izan daitekeela. Bestalde, Powell-ek Jackson Holeren sinposioan egindako hitzaldian denbora gehiagoz igoera gehiago izateko aukera azpimarratu du eta behar izanez gero, igoera gehiago izateko aukera, FEDek ez baitu uste inflazioa % 2ko helburura jaisten ari denik. Hala ere, luparekin jarraituko dituzte argitaratzen joango diren makro datuak, batez ere prezioarekin, konfiantzarekin, enpleguarekin eta hazkundearekin lotutakoak. Europan, berriz, euroneko inflazioaren abuztuko datua argitaratu da azken egunean. Espero eta nahi ez bezala, ez zen jaitsi % 5,3an mantendu baitzen, ondorioz merkatuak EBZ-ren hurrengo bileran interes tasen igoera deskontatzeko aukera handiagoa izan du. Azkenik, enpresen emaitzek urte arteko beherakada izan dute bigarren hiruhilekoan, batez ere kalifikazio murrizketek, kapital arau berriek eta Italiako ezusteko zergak eragin dieten bankuek, baina batez beste aurreko aurreikuspenak gainditzea lortu dute.

## ERRENTA ALDAKORRA

Txinaren egoeraren ondorioz sortutako ziurgabetasuna eta Banku Zentralaren mugimenduen bide orriaren gaineko zalantzek merkatuan ezegonkortasuna sortu dute, abuztua burtsa batzuentzako urteko hilabete txarrenetariko gisa nabarmendu delarik. Europan jaitsierak nabarmenak izan dira, batez ere, Eurostoxx50 eta DAX indizeena, hurrenez hurren % 3,90 eta % 3,04ko jaitsierekin. Ibex35 izan da Europako jarrerarik onena erakutsi duen indizea, % 1,4 jaitsi baita, Inditex, Repsol eta bankuen sostenguarekin. Estatu Batuetan ere itxiera negatiboak izan dira, baina jaitsiera apalagoekin. S&P500 indizeak % 1,77 eman du eta Nasdaq izan da indize aipagarriena % 1.62 jaitsiz, urteko hilabete txarrena izan delarik ere. Nazioarteko gainerako indizeetan, Txina erasotzen duten arazoek zuzenean kaltetu dituzte merkatu emergenteak, osotasunean % 6,36 ematen baitute.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2023ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	9.505,90	EUR	%-1,41	%15,52
EUROSTOXX-50	EUROPA	4.297,11	EUR	%-3,90	%13,27
S&P-500	AEB	4.507,66	USD	%-1,77	%17,40
DOW JONES	AEB	34.721,91	USD	%-2,36	%4,75
NASDAQ 100	AEB	15.501,07	USD	%-1,62	%41,69
NIKKEI-225	JAPONIA	32.619,34	JPY	%-1,67	%25,00
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	980,33	USD	%-6,36	%2,50
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.986,02	EUR	%-2,55	%14,73

Iturria: Bloomberg

## ERRENTA FINKOIA

Hilabetearen lehengo etapan tasak igo ziren arren, Europan inflazioaren datuak argitaratu ondoren, hurrengo bileran tasak igotzeko probabilitatea % 75tik % 53ra jaitsi da. Ondorioz, 10 urtetara bonu alemaniarrek buelta eman du eta abuztuan oinarritzko 3pb jaitsi da % 2,47ko errentagarritasunera iritsi arte. Tarte laburrak ere behera egin du, kasu honetan Alemaniako bi urteetako 6pb, % 2,98raino. Bestetik, Ameriketako kurbako mugimendu aldakorra, non tarte luzea sendo igo den, 15pb igoz hamar urtetako bonoa eta 1pb jaitsiz bi urteetako. Bestetik, Euriborrari dagokionez, urte bete eta erdian jaitsi den lehen aldia izan da abuztuan, baina % 4tik gora jarraitzen du, zehazki % 4,073an.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2023ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	3,80	0,09	1,67
	6 HIL.	3,96	0,03	1,26
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOIA	12 HIL.	4,07	0,00	0,77
	2 URTE	2,98	-0,06	0,21
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOIA	5 URTE	2,48	-0,06	-0,10
	10 URTE	2,47	-0,03	-0,11
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	3,37	-0,08	0,45
	5 URTE	3,15	-0,06	0,00
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOIA	10 URTE	3,48	-0,03	-0,18

Iturria: Bloomberg

## DIBISAK ETA LEHENGAIK

Mugimendu askoko hilabetea Europako dibisarentzat dolarraren aurrean. EBZ-ren mezuen ondoren eta Ameriketako ekonomiaren erresilientzia harrigarriaren aurrean, aurreko hilabeteen hasitako beherakadak jarraitu du, 1,08 dolarretan itxi du hilabetea, uztailean baino % 1,40 baxuago. Aldiz, moneta bakarrik balioa irabazi du yenarekin alderatuta eta liberarekiko balioa galdu du. Petrolioaren prezioak % 2 baino gehiago irabazi du, izan ere, abuztuan LPEEren ekoizpenari buruz egindako inkestean arabera, eskaintzak gora egin du 2018tik ekoizpen handiena duelarik, batez ere Irani esker. Urreari dagokionez, % 1,27ko balioa galdu du.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg